

OINARRIAK

Garapen-bidean dauden herrialdeekiko lankidetza programa eta diru laguntzak emateko oinarriak

ATARIKOA

2023ko abenduaren 21ean, Eskoriatzako Udalaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen. Plan horretan ildo estrategikoak jasotzen dira, eta horietako hirugarrena "Gizarte ekintzak" izenekoa da.

Lerro honen B ekintza diru laguntzak GKEei dira eta helburua da Gobernuz kanpoko erakundeei dirulaguntzak ematea garapen bidean dauden herrietako biztanleen baldintza sozioekonomikoak hobetzerazuzendutako garapenerako lankidetza programak gauzatzeko.

1. artikulua. Xedea eta finantzazioa

Gobernuz kanpoko erakundeei norgehiagoka erregimenean diru laguntzak emateko araubidea ezartzea da oinarri hauen helburua, erakunde horiek garapenerako lankidetza-programak antolatu eta gauzatu ditzaten, garapen bidean diren herrialdeetako biztanleen egoera sozio-ekonomikoa hobetze aldera.

Diru laguntzak jaso nahi dituzten programek ondorengo ezaugarriak izan beharko dituzte:

- Garapen bidean diren herrialdeetan egin beharko dira edo herrialde horietako pertsona edo erakundeekin.

- Beraien helburuek garapen ekonomiko eta sozial orekatua lortzen laguntzea eta sustatzea edo arlo hauek ardatz izatea: osasuna, hezkuntza, gizarte arreta, kultura, giza eta gizarte eskubideen sustapena, demokraziaren baloreen garapena, emakumeen eta gizonetzkoen arteko berdintasuna, norbanakoen eta taldeen askatasuna...

- Herritarrak izatea onuradunak.

- Kultur ezarpenik ez egiterik eta komunitate hartzailearen idiosinkrasia eta bertako ingurumena errespetatzea.

- Herritarren parte hartzea eta inplikazio aktiboa bultzatzea.

2. artikulua. Erakunde onuradunak.

a) Diru laguntza eskatu ahal izango dute legez eraturako irabazi-asmorik gabeko Gobernuz Kanpoko Erakundeek, euren jarduerak deialdi honetako helburuarekin bat baldin badatoz.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira Estatuaren erakundeak eta haren mende dauden zerbitzuak, Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Toki Administrazioa eta irabazi-asmoa duten erakundeak.



b) Debagoienean izan beharko dute egoitza soziala edo ordezkaritza eta administrazio-egitura iraunkorra.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko elkarten erregistroan edo beste erregistro publikoren batean inskribatuta egotea eta identifikazio fiskaleko kodea izatea.

Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izan beharko dituzte.

d) GKE bakoitzak ezin izango ditu aurkeztu 2 proiektu baino gehiago urtean zehar egiteko.

3. artikulua. Eskaerak tramitatzeko ardura duen administrazio unitatea.

Eskaerak Gizarte Zerbitzuetako administrazio unitateak tramitatuko ditu.

4. artikulua - Araudi aplikagarria

Dirulaguntza hauek eta onuradunaren eta erakunde emailearen arteko harreman juridikoa oinarri hauek eta diru laguntzak ematerakoan indarrean dauden gainerako arauak arautuko dituzte.

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetarako honako hauek aplikatuko dira:

- Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzen duen Ordenantza Orokorra (GAO 85. zenbakia, 2021eko maiatzaren 10a)

-39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

-Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (Estatuko Boletín Ofiziala: 2003-11-18) eta lege hori garatzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaz onartutako Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu orokorra.

-Diru laguntzei buruzko Eskoriatzako Udalaren 2024-2027 Plan Estrategikoa (2024ko otsailaren 28ko GAO).

-Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bateginaren 23. artikulua.

-Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko 1/2016 Legea.

5. Artikulua. Eskaerak.

5.1.- Epea: *Eskaerak aurkezteko epea HILABETEKOA izango da iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita. Epearen azken eguna larunbata edo jaieguna bada, hurrengo egun baliadunera luzatuko da epe amaiera.*

“39/2015 Legearen 14.artikulan xedatutakoaren arabera, pertsona juridikoek administrazio publikoekin harremanak bitarteko elektronikoen bitartez izateko betebeharra dute. Hori horrela, dirulaguntza hau ezin da presentzialki eskatu eta telematikoki egin beharko da eskaera.

Eskaera telematiko hori eguneko 24 orduetan, asteko 7 egunetan egin ahal izango da, Eskoriatzako Udalaren egoitza elektronikoen (www.eskoriatza.eus) “Tramiteak” atalean. (<https://labur.eus/R9fsY>)



Eskatzaileak aurkeztutako proiektuaren dokumentazioa osatu gabea edo urria dela egiaztatuko balu Udalak, 10 egun naturaleko epea emango dio eskatzaileari akats edo hutsegite hori konpontzeko, eta epe hori bukatuta, zuzenketa egin ez badu, eskaria besterik gabe artxibatu da.

5.2.- Aurkeztu beharreko agiriak.

Gobernuz kanpoko erakunde bakoitzak diru laguntza eskatzen duen proiektu bakoitzeko ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko du formatu digitalean:

- Eskaera orria. Orrian bertan aitortu beharko ditu honako hauek:
 - Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
 - Ez duela hasita edo tramitean administrazioari dirua itzultzeko inolako prozedurarik.
 - Ez duela jarduera bererako beste dirulaguntzarik eskatu. Eskatu badu, horri buruzko dokumentazio espezifikoa aurkeztu beharko da.
 - Ez duela sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen eta aplikatu beharrekoa den araudia urratzeagatik administrazio-zigorrik, ez zigor penalik.
 - Bere xede edo helburuak ez direla emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak.
 - Ez duela 38/2003 Legearen 13.2 eta 13.3 ataletan jasotako debekurik.
- GKEaren proiektuari buruzko datuak ([I.Eranskina](#))
- Eusko Jaurlaritzako elkarte eta entitate-erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria. Ziurtagiri horretan helbide sozialari buruzko informazioa agertu beharko da.
- Eskoriatzako Udalak zuzenean eskatuko dizkie beste administrazio batzuei eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete dituela egiaztatzeko behar diren datuak. Eskatzailea eskaera-orrian horren aurka agertzen bada, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoakegunean dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.
- 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzkoa bete beharko da, eta ondorioz, adin txikikoekin ekintzak edo jarduerak modu jarraian egiten dituztenek kasuetan Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharko dute. Ziurtagiri horrek gehienez 6 hilabeteko antzintasuna izan beharko du.

-Egonaldien, alokairuen, bidaien, dieten eta abarren gastuek ezin dute aurrekontuaren %30 gaingitu.

6. artikulua. Balorazio irizpideak

Eskatutako beharkizunak betetzen dituzten eskaeren artean diru laguntzen banaketa egiteko honela jokatu da:

1. Diru laguntzak emateko orduan, aurkeztutako ekintzen arabera hautaketa egiteko, ondoko baremoa erabiliko da:



a) Garatu gabeko herrialdeetako biztanleen ekonomia eta gizarte garapenerako premiei eta bereziki gizarte mailarik apalenen funtsezko premiei erantzutea. Gehienez puntu bat.

b) Onuradunen giza garapena areagotzea jardueraren partaide eginez, jardueraren gestioa euren esku uzten denean jarduerarekin jarraitzeko gauza izan daitezen. Gehienez puntu bat.

c) Garapen komunitarioko egitarauen barruan burutzea, komunitate onuraduneko kideen partaidetza eta prestakuntza sustatzea eta toki antolakuntzen garapena bultzatzea. Gehienez puntu bat.

d) Garapen bidean dauden herrien egokieragatik, bertako biztanleen interesa sortzeko edo geroko lankidetzatza proiektuetako partaidetzarako oinarri izan daitezela. Gehienez puntu bat.

e) Aurreikusitako helburuak lortzeko proposatutako ekintzen bideragarritasuna bermatzea, batez ere onuradunen gaitasunari dagokionez. Gehienez puntu bat.

f) Emakumearen inplikazioa eta sustapena sustatzen duten proiektuak. Gehienez bi puntu.

g) Jarraipen egokia bermatzeko lehentasunezkoa izango da erakunde eskatzaileak, bere antolakuntza barnean, eskoriatzarren partaidetza izatea. Gehienez hiru puntu.

2. Puntuazioa eman ondoren, eta kontuan izanda eskaera mordoxka bat aurkeztu daitezkeela eta emandako kreditua nahikoa ez izan emandako laguntzarekin guztiek etekinak bermatzeko, aurkeztutako proiektu eta ekintzen hautaketa egingo da, eta kanpoan geratuko dira 5 puntu baino gutxiago lortutako proiektuak.

3. Ondoren, 5 puntu edo gehiago dituzten proiektuak hautatu eta gero, laguntza honela banatuko da:

Proiektu bakoitzari puntuazio berri bat emango zaio ondorengo koadroan azaltzen den moduan:

Baremoaren arabera lortutako puntuazioa	Emandako puntuazio berria
5	1
6	2
7	3
8	4
9	5
10	6

Puntuazio berriaren arabera puntu bakoitzari kopuru bat egokituko zaio; kopuru hori lortzeko aurrekontu-kreditua zatituko da aurkeztutako proiektu guztien artean lortutako puntuen artean.

7. artikulua. Aurrekontua

Dirulaguntza hauetarako 0300.481.230.20.01 2024 partidatik 7.500 €-ko diru kopurua izango da 2024ko ekitaldi honetan.



8. artikulua. Proposamenak egin eta erabakia hartzea:

Eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, Gizarte Zerbitzuetako batzordeak aztertuko ditu jasotako eskaerak eta egindako txosten teknikoak (horretarako, lehiaketara aurkeztu ez den gobernuz kanpoko erakunderen baten lankidetzara eskatu ahal izango du), eta ondoren proposamena egingo dio alkateari.

9.artikulua. Entitate eskatzaileari jakinaraztea:

Alkateak hartutako erabakia diru laguntza eskatu duen entitateari adieraziko zaio jakinarazpen bidez.

10. artikulua. Justifikazioa.

Dirulaguntzaren justifikazioa egiteko ezinbestekoa izango da diruz lagundutako aktibitateakedo jarduerak eginak izatea eta udaletxean ondoko agiriak aurkeztea:

1. Eskaera orri orokorra

2. Eskaera orriarekin batera, diruz lagundutako **proiektuari buruzko memoria** aurkeztu beharko da (II. eranskina). Bertan, besteak beste, honakoak jasotzen dira:

- Diruz lagundutako proiektua dela eta izandako sarreraren eta gastuen balantzea, hasieran aurkeztutako aurrekontuari egokitu dela egiaztatzeko. Balantze hori organo eskudunak onartuta eta erakundeko idazkariak ziurtatuta egon beharko da. Hasieran aurkeztutako aurrekontuari zein neurritan egokitu zaion balantzea egiaztatzeko, justifikazioarekin batera hasierako aurrekontuarekiko balantzeak izandako desbideraketa taula aurkeztu beharko da, eta desbideraketarik izanez gero, horiek justifikatzeko txostena ere egin beharko da.
- Proiektuak sortutako gastuen zerrenda sailkatua (JUSTIFIKATZEKO KONTUA) honako hauekin: hartzekodunaren identifikazioa, faktura zenbakia edo froga-balio baliokidea duen dokumentua, zenbatekoa, fakturaren data eta ordainketa eguna.
- Eskatutako beste dirulaguntzen aitortpena.(III.eranskina)
- Berdintasunarekin zerikusia duten betebeharrak egiaztatzeko:
 - Kasuaren arabera, eta lehendik eskatuta ez badago, dokumentazioa grafikoa aurkeztuko da: kartelak, egitarauak, eskuorriak, ...
- Adikzioen prebentzioarekin zerikusia duten betebeharrak egiaztatzeko:
 - Kasuaren arabera, eta lehendik eskatuta ez badago, dokumentazioa grafikoa aurkeztuko da: kartelak, egitarauak, eskuorriak, ...

3. Gastuen justifikazioa

- Jarduerak sortutako gastuen jatorrizko fakturak aurkeztu beharko dira (ordainketa egiaztatuta) behar bezala beteta. Diruz lagundutako jarduera osoarengatik aurkeztu beharko dira fakturak, nahiz eta Udalak emandako dirulaguntza hasierako aurrekontua baino txikiagoa izan.
- Justifikatutako diren gastu guztiak erakunde eskatzailearen izenean egon behar dira, dirulaguntza jasotako urteko data izan behar dute eta diruz lagundutako proiektuarekin bat etorri behar dira.
- **Fakturek, gutxienez, honako hauek izan beharko dituzte:**
 - Faktura egiten duen enpresa edo pertsona fisikoaren datu guztiak: izena, helbidea, Identifikazio Fiskaleko Kodea (IFK) edo Nortasun Agiria (NAN).



- Diru laguntzaren onuradunak ordaintzeko jaulkitako fakturak izan beharko dira, eta bertan jaso beharko dira bere izena, helbidea eta IFK, kontzeptua, unitateak, koste totala unitateko, koste totala eta Balio Erantsiaren Gaineko Zerga (BEZ) banakatua edo BEZ barne den, faktura zenbakia, jaulkipen data eta ordainketa modua. BEZa salbuetsita duten operazioetan hori egiteko arauaren erreferentzia jaso beharko da.
- **Langileen gastuak justifikatzeko:**
 - Jarduerarekin lotutako langile guztien zerrenda, erakundeko ordezkariak ziurtatua; bertan adierazi beharko da bakoitzak egindako lan edo funtzioak, horretan emandako denbora eta kostea.
 - Kontratuak, nominak, Gizarte Segurantzari kotizatu izanaren buletinak (TC/1 eta TC/2 dokumentuak) edo erregelamenduz horiek ordezkatzan dituztenak eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ) kontzeptuagatik egindako atxikipenak Ogasunean sartu izanaren dokumentuak.

Kontzepturen batekin zalantzarik sortuz gero, erakundeari gastu horri buruzko zehaztasun gehiago aurkeztea eskatu ahal izango zaio.

Justifikatzeko epeari dagokionez, eskatutako dokumentazioa diru laguntza ematen den hurrengo urteko urtarrilaren 10a baino lehen aurkeztu beharko da.

Jarritako epe muga iritsita proiektua bere osotasunean burutu gabe, diru laguntza bezala emandako diru kopuruari dagokion zuzenketa egingo zaio. Diruz lagundutako erakundeak proiektuaren garapen egoerari buruzko informazioa emango du Udalak ezarritako jarraipen planaren arabera.

11. artikulua. Ordainketa egiteko epea eta modua.

Diru laguntza ordainketa bakarrean egingo da txostena aurkeztu eta proiektua diru laguntza eman ondorengo urte naturalaren urtarrilaren 20a baino lehen % 100ean egin dela dokumentu bidez justifikatu ondoren.

12. artikulua. Diru laguntzaren erregularizazioa.

Benetan izandako gastu eta diru sarrerak ikusita, emandako diru laguntza zuzenduko da diru laguntza ordaindu behar denean.

Diru laguntza ematerakoan kontuan hartutako baldintzak aldatzen baldin badira edo helburu berarekin beste erakunde batzuk emandako diru laguntzarik jasoz gero, horiek diru laguntza emateko erabakia aldatzea ekar dezakete.

13. artikulua. Entitate onuradunaren betebeharrak

-Garapenerako lankidetzeta-programetarako diru laguntza jaso duen entitate onuradunak, herritarren sentsibilizazioa lantzeko helburuarekin, bere proiektuaren berri emango du Eskoriatzan. Dibulgazio ekimen hori Gizarte Zerbitzuekin batera egingo da.

-Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bateginaren 23. artikuluan ezarritakoaren arabera, dirulaguntza jasotzen duten erakundeek



hizkera ez-sexista erabili beharko dute aurkezten dituzten memoria, proiektu eta gainerako testuetan. Era berean, genero-estereotipoak errepikatzea saihestu beharko da, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna aktiboki sustatu, egiten diren irudi, komunikazio, argitalpen, programa, ikastaro eta abarretan.

-Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko 1/2016 Legea.n ezarritako neurriak betez, edari alkoholduen eta tabakoaren publizitatea, sustapena, hornidura, salmenta eta kontsumoa mugatu beharko da, bereziki adingabeei zuzendutako jarduerak direnean.

14. artikulua. Euskararen erabilera

Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuak ezarritakoa betez, diruz lagundutako jarduerak herritar-multzo zehaztugabe batekin zuzeneko harremana edukitzea berekin dakarrenean, euskararen erabilera normala bermatu beharko da, hargatik eragotzi gabe gaztelania erabiltzea.

Halaber, jarduera horretan egiten diren komunikazio edo argitalpenetan euskarari emango zaio lehentasuna.

15. artikulua. Betebeharrak ez betetzea:

Agindu honetan aurreikusitako betebeharren bat ez betetzeak diru laguntza berrikustea ekarriko du, eta hala behar izanez gero, emandako diru laguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.

16. artikulua. Bateragarritasuna beste diru laguntza batzuekin.

Udalak emandako diru laguntza bateragarria izango da helburu bererako emandako beste edozeinekin.

Hala ere, diru laguntza ezin izango da izan, bera bakarrik edo beste laguntza batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

17. artikulua. Diru laguntza bertan behera uztea edo baliogabetzea.

Diru laguntza berraztertzeke eta, hala bada, bertan behera uzteko arrazoia izango da diru laguntza jasotzea eskatutako baldintzak bete gabe.

18. artikulua. Interpretatzea.

Oinarriak interpretatzerakoan eta garatzerakoan sor daitezkeen zalantzak Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuak erabakiko ditu.

19. artikulua. Araudi osagarria.

Oinarri hauetan berariaz ezarrita ez dagoenetarako, estatuko azaroaren 17ko 38/2003 Legean ezarritakoa zein diru laguntza arloan indarrean dagoen gainerako legedia aplikatuko da.



Programa de cooperación con los países en vías de desarrollo y bases para la concesión de subvenciones

PREAMBULO

Con fecha 21 de diciembre de 2023 quedó aprobado el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Eskoriatza 2024-2027. En dicho Plan se recogen las diferentes líneas estratégicas, siendo la tercera la denominada “Acción social”.

La acción B de esta línea son subvenciones a ONGs y tiene como objetivo la concesión de subvenciones a organizaciones no gubernamentales, para la materialización de programas de cooperación para el desarrollo, dirigidos a la mejora de las condiciones socioeconómicas de la población de las naciones en vías de desarrollo.

Artículo 1. Objeto y Financiación

Es objeto de las presentes bases establecer el régimen de otorgamiento de subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, a organizaciones no gubernamentales, para la organización y consecución de programas de cooperación para el desarrollo, dirigidas a la mejora de las condiciones socioeconómicas de los países en vías de desarrollo.

Los programas objeto de subvención deberán tener las siguientes características:

- Que se realicen en países en vías de desarrollo o con personas o entidades de dichos países.
- Que sus objetivos favorezcan y promuevan el desarrollo económico-social equilibrado o se centren en áreas de salud, educación, atención social, cultura, promoción de los derechos humanos y sociales, desarrollo de los valores de la democracia, la igualdad entre las mujeres y hombres, las libertades individuales y colectivas, etc.
- Que puedan beneficiarse de ellos la ciudadanía general.
- Que eviten la imposición cultural y respeten la idiosincrasia de la comunidad receptora y su medio ambiente.
- Que favorezcan la participación e implicación activa de la población.

Artículo 2. Organizaciones beneficiarias.

a) Podrán solicitar subvención las Organizaciones o Instituciones No Gubernamentales sin ánimo de lucro y legalmente constituidos, cuyas actividades coincidan con el objeto de esta convocatoria.

Quedan expresamente excluidas de acceder a esta convocatoria las instituciones y servicios dependientes del Estado, la Administración Autónoma, la Administración local y las entidades con ánimo de lucro.



b) Deberán tener sede social o delegación y estructura administrativa permanente en el Alto Deba.

c) Deberán hallarse inscritas en el Registro de Asociaciones de la Comunidad Autónoma u otros registros públicos, y hallarse en posesión del correspondiente código de identificación fiscal.

Deberán hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

d) Cada ONG no podrá presentar más de 2 proyectos para llevar adelante en el año en curso.

Artículo 3. Unidad Administrativa encargada de la tramitación de las solicitudes.

Las solicitudes serán tramitadas por la unidad administrativa de Servicios Sociales.

Artículo 4. - Normativa aplicable

La concesión de estas ayudas y la relación jurídica entre el/la beneficiario/a y la entidad otorgante se regirá por las presentes bases y demás normativas vigentes en el momento de su concesión.

En todo lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación:

-Ordenanza General reguladora del régimen de subvenciones del Ayuntamiento de Eskoriatza (BOG nº85, del 10 de mayo de 2021)

-Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones públicas.

-Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (Boletín Oficial del Estado 18-11/2003) y el Reglamento General de subvenciones aprobado por Real Decreto 887/2006 de 21 de julio.

-Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Eskoriatza (BOG de 28 de febrero de 2024).

- "La Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, de conformidad con lo establecido en el artículo 23 del texto refundido.

-La Ley 1/2016, de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias.

Artículo 5. Solicitudes.

5.1.- Plazo: El plazo para presentar las solicitudes será de UN MES a contar desde el día siguiente a la publicación del anuncio de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Si el último día del plazo fuese sábado o festivo, se prorrogará hasta el siguiente día hábil.

1 "De conformidad con el artículo 14 de la Ley 39/2015, las personas jurídicas tienen la obligación de relacionarse con las Administraciones Públicas haciendo uso de medios electrónicos, por lo que las solicitudes para esta subvención, deberán presentarse obligatoriamente por vía telemática.



2 Esta solicitud telemática se podrá realizar las 24 horas del día, los 7 días de la semana, en la sede electrónica del Ayuntamiento de Eskoriatza, www.eskoriatza.eus, en el apartado "Trámites". (<https://labur.eus/5tgsi>) .

Si el Ayuntamiento comprobara que la documentación es insuficiente respecto al proyecto presentado, concederá al mismo un plazo de 10 días naturales para subsanar la omisión o deficiencia, transcurrido el cual, sin haber procedido a la subsanación, la solicitud se archivará sin más trámite.

5.2.- Documentación a aportar

Cada ONG deberá presentar por cada proyecto por el que solicita subvención la siguiente documentación en formato digital:

- Impreso de **Solicitud de subvención**. En el impreso deberá declarar:
 - Hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.
 - No hallarse incurso en ningún proceso de devolución económica ante la administración.
 - No haber solicitado otra subvención para la misma actividad. En su caso, documentación específica al respecto.
 - No haber recibido sanción administrativa o penal por discriminación sexual o por infringir la normativa vigente y aplicable en materia de igualdad entre hombres y mujeres.
 - Que sus fines y objetivos no son contrarios al principio de igualdad entre mujeres y hombres.
 - Que no está incurso en ninguna de las causas de prohibición de los artículos 13.2. y 13.3 de la Ley 38/2003.
- Datos sobre el proyecto de la ONG (Anexo I).
- Certificado de inscripción en el registro de asociaciones y entidades del Gobierno Vasco. En dicho certificado tendrá que aparecer información referente a la sede social.
- El Ayuntamiento de Eskoriatza solicitará directamente a otras administraciones los datos necesarios para acreditar el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social por parte del solicitante. En el caso de que la persona solicitante se oponga a ello en la instancia, deberá presentar la documentación acreditativa de hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.
- Se tendrá en cuenta lo dispuesto en la Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio, de protección integral de la infancia y la adolescencia frente a la violencia, y en consecuencia, en las actividades que impliquen un contacto habitual con personas menores de edad, se deberá aportar certificado negativo del Registro Central de Delincuentes Sexuales. Este certificado deberá tener una antigüedad máxima de 6 meses.

-Los gastos derivados de la estancia, alquileres, dietas, viajes... (de los cooperantes) no podrán superar el 30% de la cantidad solicitada.

Artículo 6.- Criterios de valoración



La asignación de las subvenciones entre las solicitudes que cumplan los requisitos establecidos se hará de la siguiente forma:

1.- En primer lugar, se procederá a asignar una puntuación a los proyectos y/o acciones presentadas según el siguiente baremo:

a) Que respondan a las necesidades de desarrollo económico y social de las poblaciones destinatarias y, en particular, a las necesidades básicas de los sectores más desfavorecidos. Hasta 1 punto

b) Que incrementen la capacidad de desarrollo humano de los beneficiarios y beneficiarias y, en su caso, les haga participar en la acción, de forma que puedan continuarla una vez revierta en ellos su gestión. Hasta 1 punto

c) Que se realicen en el marco de programas de desarrollo comunitarios, fomenten la participación y la formación de los miembros de la comunidad beneficiaria y potencien el desarrollo de organizaciones locales. Hasta 1 punto

d) Que promuevan el interés de los ciudadanos por la realidad de los países en vías de desarrollo y/o que sirvan de base para la participación en futuros proyectos de cooperación. Hasta 1 punto

e) Que las acciones propuestas tengan garantizada su viabilidad, especialmente a través de la capacidad de la contraparte local del país beneficiario para cumplir los objetivos previstos. Hasta 1 punto

f) Aquellos proyectos que potencien la implicación y la promoción de la mujer. Hasta 2 puntos.

g) Para garantizar un mejor seguimiento se considerará prioritario: Que el Organismo solicitante, dentro de su organización, cuente con la participación de personas de Eskoriatza. Hasta 3 puntos.

2.- Asignada una puntuación, y teniendo que el número de solicitudes puede ser elevado y el crédito asignado no ser suficiente para atender todas de forma que la ayuda concedida garantice una viabilidad de resultados, se hará una selección de los proyectos /acciones. Quedarán eliminados aquellos que no obtengan más de 5 puntos.

3.- Seleccionados los proyectos con 5 ó más puntos, la asignación de la subvención se hará de la siguiente forma:

Se asignará a cada proyecto una nueva puntuación según el siguiente cuadro:

Puntuación obtenida según anterior baremo	Nueva puntuación asignada
5	1
6	2
7	3
8	4
9	5
10	6



Según la nueva puntuación, a cada punto se le asignará una cuantía resultante de dividir el crédito presupuestario entre el total de puntos obtenidos por todos los proyectos seleccionados.

Artículo 7.- Presupuesto

La cantidad destinada a la ejecución de la presente Convocatoria de Subvenciones asciende a 7.500 €, imputables a la partida presupuestaria, 0300.481.230.20.01 2024 correspondiente al ejercicio 2024.

Artículo 8.- Elaboración y resolución de propuesta.

Presentada la documentación requerida la Comisión de Servicios Sociales estudiará y analizará las solicitudes recibidas y los informes técnicos elaborados en su caso, pudiendo para este fin solicitar la colaboración de una Organización No Gubernamental no participante en el concurso, elevando propuesta de concesión a la alcaldía.

Artículo 9.- Notificación a la entidad peticionaria:

La resolución adoptada por el alcalde será debidamente notificada a la organización peticionaria de la subvención.

Artículo 10. Justificación.

Para la justificación de la subvención será requisito indispensable haber realizado las actividades subvencionadas y presentar en el Ayuntamiento la siguiente documentación:

1. Impreso de Solicitud general.

2. Junto con el impreso se deberá adjuntar la **memoria justificativa** del proyecto subvencionado (Anexo II). En dicha memoria se recoge, entre otros, la siguiente información:

- Balance de ingresos y gastos realizados con motivo del proyecto subvencionado, de manera que se pueda comprobar que se ha ajustado al presupuesto inicial presentado. Dicho balance deberá de estar aprobado por el órgano competente y certificado por quien represente a la entidad. Para comprobar la medida en que se ha ajustado el balance al presupuesto inicial presentado, se acompañará con la justificación el cuadro de desviaciones del balance con respecto al presupuesto inicial, y en el caso de que en el mismo se observen desviaciones, se cumplimentará el informe de justificación de las mismas.
- Una relación clasificada de los gastos que ha generado el proyecto (CUENTA JUSTIFICATIVA), con identificación de la entidad acreedora, número de la factura o documento de valor probatorio equivalente, el importe, la fecha de emisión y la fecha de pago.
- Declaración de otras ayudas solicitadas. (Anexo III)
- Para acreditar obligaciones relacionadas con la igualdad:
 - Según el caso y si no se ha solicitado anteriormente, se presentará documentación gráfica: carteles, programas, folletos, ...
- Para acreditar obligaciones relacionadas con la prevención de las adicciones:
 - Según el caso y si no se ha solicitado anteriormente, se presentará documentación gráfica: carteles, programas, folletos, ...

3. **Justificación de los gastos:**



- Los gastos se justificarán mediante facturas originales (con acreditación de su pago) debidamente cumplimentadas de los gastos realizados en el ejercicio de la actividad. Las facturas habrán de presentarse por el conjunto de la actividad subvencionada aun cuando el otorgamiento de la subvención municipal sea inferior al presupuesto inicial.
- Todos los gastos que se justifiquen deberán estar datados durante el año en que se haya concedido la subvención, y corresponder al proyecto objeto de subvención.
- **Las facturas deberán incluir como mínimo lo siguiente:**
 - Datos completos de la empresa o persona física emisora: denominación, domicilio, CIF o DNI.
 - Estarán expedidas a nombre de la entidad beneficiaria de la subvención, haciendo constar su denominación, domicilio y CIF, concepto, unidades, coste total por unidad, coste total e IVA desglosado o incluido, nº de factura, fecha de emisión y forma de pago. Deberá constar la referencia normativa en caso de operaciones exentas de IVA.
- **Para la justificación de los gastos de personal:**
 - Relación certificada por quien represente a la entidad de todo el personal que se imputa a la actividad, con especificación de las tareas o funciones que ha realizado, tiempo de dedicación y coste.
 - Contratos, nóminas, boletines de cotización a la Seguridad Social (documentos TC/1 y TC/2) o los que sustituyan reglamentariamente y documentos de ingreso en Hacienda de las retenciones practicadas en concepto de I.R.P.F

Si surge alguna duda en torno a alguno de los conceptos, se podrá solicitar información más detallada a la organización.

Respecto de los plazos para la justificación, deberá de presentarse la documentación requerida antes del 10 de enero de año siguiente al de la concesión de la ayuda.

Si llegado el plazo límite fijado anteriormente no se ha ejecutado la totalidad del proyecto, se realizará la oportuna rectificación de la cantidad otorgada como ayuda. La entidad subvencionada facilitará información sobre el estado de desarrollo del proyecto de acuerdo al plan de seguimiento que establezca el Ayuntamiento.

Artículo 11.- Plazo y forma de Pago.

El abono de la subvención se hará en un único desembolso previo informe y justificación documental de la realización del proyecto en un 100% antes del 20 de enero del año natural siguiente al de la concesión.

Artículo 12.- Regularización de la subvención.

A la vista de los gastos e ingresos realmente producidos, se efectuará la oportuna rectificación de la subvención concedida en el momento de abonar la misma.

La modificación de las condiciones tenidas en cuenta al otorgar la subvención, así como las ayudas económicas recibidas por otras entidades con el mismo fin, podrán conllevar también una modificación en el acuerdo de concesión de la subvención.

Artículo 13. Obligaciones de la entidad beneficiaria

-La entidad beneficiaria de las ayudas para proyectos de cooperación dará a conocer su proyecto con el fin de sensibilizar a la población de Eskoriatza. Dicha acción divulgativa se hará en coordinación con los Servicios Sociales.



- “De conformidad con lo establecido en el artículo 23.3.c) del texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, las memorias, proyectos y demás textos aportados por las entidades beneficiarias de subvención, deberán adecuar su redacción a un uso no sexista del lenguaje. Asimismo, se deberá evitar la reproducción de estereotipos de género y promover activamente la igualdad de mujeres y hombres en todas las imágenes, comunicaciones, publicaciones, programas, cursos, etc. que se realicen.”

- “En cumplimiento de las medidas establecidas en la Ley 1/2016, de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias, se deberá de limitar la publicidad, promoción, suministro, venta y consumo de bebidas alcohólicas y tabaco, especialmente cuando se trate de actividades dirigidas a personas menores de edad.”

Artículo 14. Uso del euskera

En cumplimiento de lo establecido en el Decreto 179/2019, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi, cuando la actividad objeto de subvención implique una relación directa con un conjunto indeterminado de vecinos y vecinas, se deberá garantizar el uso normal del euskera, sin perjuicio del uso del castellano.

Asimismo, en las comunicaciones o publicaciones que se produzcan en el marco de esa actividad se dará preferencia al euskera.

Artículo 15.- Supuesto de incumplimiento:

El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones previstas en las presentes bases, supondrá la revisión de la Concesión y, en su caso, la anulación, disminución o devolución de la cantidad otorgada.

Artículo 16.- Compatibilidad con otras subvenciones

La subvención concedida por el Ayuntamiento será compatible con cualquier otra recibida para el mismo fin.

Sin embargo, el importe de la subvención no podrá ser, por sí sola o junto con otras subvenciones, superior al costo de la actividad subvencionada.

Artículo 17. Anulación o revocación de la subvención.

Será motivo de revisión y, en su caso, de anulación de la subvención concedida el haberla recibido sin cumplir las condiciones requeridas para ello.

Artículo 18.- Interpretación.

Cualquier duda surgida en la interpretación y desarrollo de estas bases será resuelta por la presidenta de la comisión de Servicios Sociales.

Artículo 19.- Normativa Supletoria.

Para cuanto no esté expresamente establecido en las presentes bases, será de aplicación lo dispuesto en la ley estatal 38/2003, de 17 de noviembre, así como el resto de la legislación en vigor en materia de subvenciones.



I. ERANSKINA/ ANEXO I

GKEARI BURUZKO DATU BILKETA/ RECOGIDA DE DATOS SOBRE LA ONG URTEA/AÑO

GKEari BURUZKO DATUAK / DATOS DE LA ONG

Izena/Nombre:	E IFK/CIF:
---------------	------------

PROIEKTUAREN DATUAK / DATOS SOBRE EL PROYECTO

<p>Proiektuaren izena, herrialdea eta ezaugarriak/ Nombre del proyecto, país y características:</p> <p>Eskaeraren helburua (aurten burutuko diren jarduerak, ekintzak eta abar) / Objeto de la solicitud (actividades, proyectos del actual ejercicio):</p> <p>Parte hartzaile edo onuradunen kopurua / Nº de personas usuarias o participantes :</p>
--

ESKATUTAKO JARDUERAREN DATUAK/DATOS SOBRE LA ACTIVIDAD SOLICITADA

Jardueraren kokapena eta justifikazioa / Ámbito territorial de la actividad y justificación:	
Jardueraren egutegia/ Calendario de la actividad	
Hasiera/Inicio:.....	Bukaera/Fecha
fin:	
Epeak/Plazos:	
Jardueraren deskribapena (nori zuzenduta, ezaugarriak...)/ Descripción detallada de la actividad (a quién está dirigida, características...):	



Helburuak/Objetivos:

Ebaluatzeko adierazleak/ Indicadores de evaluación:

AURREKONTUA/PRESUPUESTO

Kontzeptua/Concepto	Gastuak/Gastos	Diru-sarrerak/Ingresos
GUZTIRA/Total:		
DEFIZITA/Déficit:		€

Beraz, Eskoriatzako Udalari, guztira, ondorengo diru laguntza eskatzen diogu/ Por tanto, solicitamos al Ayuntamiento de Eskoriatza la siguiente cantidad:..... €.

Data eta sinadura



II. ERANSKINA/ ANEXO II

JUSTIFIKAZIOAREN MEMORIA/ MEMORIA JUSTIFICATIVA

2024

GKEari BURUZKO DATUAK / DATOS DE LA ONG

Izena/Nombre:	IFK/CIF::
---------------	-----------

JARDUERAREN DATUAK/ DATOS SOBRE LA ACTIVIDAD

Jardueraren izendapena eta kokapena/Denominación del proyecto y localización:
Proiektuaren garapenaren laburpena (zertan datzan, nori zuzendu zaion, nola egin den, ebaluatzeko erabilitako indikadoreak, erabilitako metodologia ...)/Breve resumen del desarrollo de la actividad (en qué ha consistido, a quién ha estado dirigido, cómo se ha desarrollado, indicadores de evaluación utilizados, metodología ...)
Jardueraren benetako erabiltzaile kopurua/Número de personas usuarias reales en la actividad:
Proiektuaren garapenean aldaketa nabarmenak gertatu badira (jarduerak,epeak,hartzaileak, aurrekontuak...), azaldu zein diren aldaketa horiek eta zergatik gertatu diren/Si se han producido cambios significativos en el desarrollo del proyecto (actividades, plazos, personas usuarias, presupuestos...), indicarlos, así como los motivos que han inducido a ese cambio.



Egin proiektuari buruzko balorazio labur bat/Haz una pequeña valoración del proyecto.

GENERO IKUSPEGIA/ PERSPECTIVA DE GÉNERO

	Bai/Sí	Zerbait/Algo	Ez/ No
Kontuan hartu da/Se ha tenido en cuenta			
Ahaleginak egin dira hizkera sexistarik ez erabiltzeko/Se ha intentado no utilizar un lenguaje sexista			
Genero-ikuspegia zaindu da, emakumeen behar bereziak kontuan hartuz/Se ha cuidado, teniendo en cuenta las necesidades especiales de las mujeres			
Emakumeentzako proiektu espezifiko da/Es un proyecto específico para mujeres			

• **Berdintasunarekin zerikusia duten betebeharrak egiaztatzeko dagokionean/** Para acreditar obligaciones relacionadas con la igualdad en su caso:

- **Kasuaren arabera, eta lehendik eskatuta ez badago, dokumentazioa grafikoa aurkeztuko da: kartelak, egitarauak, eskuorriak, ... /** Según el caso y si no se ha solicitado anteriormente, se presentará documentación gráfica: carteles, programas, folletos, ...

• **Adikzioen prebentzioarekin zerikusia duten betebeharrak egiaztatzeko dagokionean/** Para acreditar obligaciones relacionadas con la prevención de las adicciones en su caso:

- **Kasuaren arabera, eta lehendik eskatuta ez badago, dokumentazioa grafikoa aurkeztuko da: kartelak, egitarauak, eskuorriak, ... /** Según el caso y si no se ha solicitado anteriormente, se presentará documentación gráfica: carteles, programas, folletos, ...



JARDUERAREN KOSTU GUZTIRA/ COSTE TOTAL DE LA ACTIVIDAD

Gastuak/Gastos:		Diru-sarrerak/Ingresos:	
Aurreikusitakoa/Previsto	Benetakoa/Real	Aurreikusitakoa/Previsto	Benetakoa/Real
DEFIZITA			€
.....			

III. ERANSKINA/ ANEXO III

EGIAZTAGIRIA /JUZTIFICANTE

BESTE DIRU LAGUNTZA ESKABIDEEN AITORPENA 2024

DECLARACIÓN DE LAS AYUDAS SOLICITADAS 2024

ESKATUTAKO DIRU LAGUNTZAK (jaso badira, kopurua zehaztu) / AYUDAS SOLICITADAS

(si se ha recibido, indicar cantidad)

ADMINISTRAZIO ERAKUNDEA/ADMINISTRACIÓN O ENTIDAD	EDO	ESKATUTAKO ZENBATEKOA CANTIDAD SOLICITADA	JASOTAKO ZENBATEKOA CANTIDAD RECIBIDA
GUZTIRA/TOTAL:			

Ez dugu jaso edo eskatu beste inolako laguntzarik/No hemos recibido ni solicitado ninguna subvención	
---	--

Nire erantzukizunpean adierazten dut goian azaldutako datuak egiazkoak direla/Declaro bajo mi responsabilidad que los datos arriba citados son ciertos.

Eskoriatzan, 2024kon

Idazkariaren sinadura

Lehendakariaren sinadura

(Izen-abizenak eta NAN-AIZ adierazi)